

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez. 	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

BERRIKUNTZAK EZ DU, EZ AURREIRITZI, EZ KONPLEXURIK

Enpresa batek tradizioaren bide «seguru»an bikaina izatea izan dezake helburu, baina bikaintasuna eta berrikuntza bateratzen dituzten proiektuak ere gara ditzake. Aurretiaz ezarritako bideari jarraitzeak ez du arrakasta ziurtatzen; beraz, zergatik ez bide berriak saiatu?

Berrikuntzaren aldeko apustua egitea erabaki duten enpresek aurretiaz dituzten ideiak alde batera utzi beharko lituzkete bezeroei zer eskaini erabakitzeko orduan, aurreiritziak baztertu eta oinarrizko kontzeptuak berrikusi behar dituzte, oso ezagunak izan arren, edozein proiektuk, bakoitzaren berezitasunak gorabehera, behar duen erantzun bakarra aurki dezan.

Sormenerako estrategietan ez dago inolako eragozpenik berriro berakatz-zoparen osagaiez nahiz gurpilaz galde egiteko. Horrela oso zaila izango da berriro zopa berdina asmatzea edo gurpila aurkitzea. Funtsezkoa da aurreiritzirik gabe lanean hastea, proiektu bati ekitea konponbidea ezagutu gabe. Aurretiazko ideiak alde batera uztea lortuz gero, askoz errazagoa izango da bezeroen benetako beharrianei erreparatzea —beharrizan kontzienteak izan baino lehen ere— edo belarria berrikuntzetarako adi izatea, teknikoak nahiz antolaeraren, produktuen edo beste eremu paralelo batzuetakoak izan.

Eskuarki bezeroa harritu egiten da beharrezkotzat jotzen den erantzunaren eremua espero zuena baino askoz zabalagoa dela ohartzen denean, berrikuntzak ekonomia, gastronomia, harri-bitxigintza eta beste lanbide-arlo batzuetako estrategiak baliatzen dituelako. Eskaini ahal dugun berrikuntzarik onena konplexurik ez duen jarrerarena da, errezeta edo mugei jaramonik egin gabe. Galduta gaudenean sistema bat eduki behar dugu, bidea erakutsiko digun lan-estrategia bat; baina, hortik aurrera, benetan berrikuntzaren bidean egoteko, errutinatik alde egin beharra dago, ezaguna den erantzuna saihestu eta etiketak baztertu.

Halaber, tradizioa funtsezkoa da enpresentzat, oso berritzaileak badira ere. Aurretik egin, pentsatu, gozatu eta sufritu den guztia erabili behar den altxorra da. Edozein proiekturi ekiterakoan, aurreko ekarpenak

edo kontrastaturik dauden klasikoak aztertu eta berrikusi behar dira: obra bikain bat, aulki baten oinarrizko definizioa, eguneroko keinua den eskua ematearen esanahia aztertu... Horretaz, komenigarria da baita senior profesionalak berreskuratzeko estrategia izatea ere; haiek ezin gal daitezkeen jakintza eta eskarmentua dituzte. Horrela lan-talde bikainak sortzen dira. Berrikuntzan hazteko aintzat hartu behar da beti ikasteak ez duela amaierarik: oraindik ezagutzen ez den eta bereganatua izan behar duen guztiaren aurrean zabalik egon beharra dago. Gure aurreko tradizio guztia funtsezkoa da etengabe agertzen dena interpretatzeko; identifikatzeko eta ulertzeko balio behar du, baina ez etiketatzeko edo mugatzeko.

Hasteko, berrikuntzaren prozesua irudimentsua da, eta hori arriskutsua izan ohi da. Irudimena ohiko gauzetatik urrun dauden erantzunak emateari lotzen zaio. Zalantzarik gabe, nolabait igarlea ere izan beharra dago, beste inork ezin ikus dezakeena intuitu eta ikusteko gauza izan, beharbada beste horiek ez dutelako norabide egokian begiratzen edo ez dutelako begiratu egokiarekin egiten. Batzuetan ohartzen dena zorabiatu egiten duen aberrazio optikoa baino ez da, baina ondorio egokia eragiten du, berriro argi ikusten denean jada ezer ez da berdina eta. Ohiko norabidera begiratzen ez dugunean, begiek fokatzea doitu behar dute. Baina fokatzen dena argi ikustea lortzen den bitartean, gauzak lanbrotsu ikusten dira.

Azkenik, interesgarria den zerbait sortu denean, berrikuntza gerta dadin gauzatu egin behar da; hau da, ekoitzi: ekintzaileak izan beharra dago. Halaber, nolabaiteko ziurgabetasunaz aritzeko beldurra galdu behar da eta horren kontra ahal den gehien zehaztu behar da. Zenbait ahots entzuteko edo burugabeko ideien bat erabiltzeko konplexuak alde batera utzi behar dira. Garrantzitsuena hastapenak iradokitzaileak izatea da, edozein norabidetan aurrera egiteko indarra emango dutenak. Hortik aurrera pertsonen motibazioak eta ekintzak zehaztu beharrak berrikuntza ekarriko dute. Ez da beti arrakasta berdina lortzen, baina porrotak aztertzea ere baliagarria da.

**CLARAMUNT, Xavier. *Innovai 12*,
2009ko martxoaren 24a. Egokitua.**

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

- 1. Zergatik ekiten dio enpresa tradizional arrakastatsu batek berrikuntzari?**
 - a) Bikaintasuna lortzeko ezinbesteko urratsa delako.
 - b) Bide berriak saiatzeko premia sentitzen duelako.
 - c) Betiko bideari jarraitzeak ez duelako arrakasta bermatzen.
- 2. Hastapenetan, nola ekin behar zaio proiektu berritzaile bati artikulugilearen ustez?**
 - a) Aurreiritziak albo batera utzita.
 - b) Bezeroen benetako beharrianak aldeztatik hartuta.
 - c) Norabidea bezeroarekin batera argi eta garbi zehaztuta.
- 3. Testuaren arabera, zer egin behar du enpresa batek berrikuntzaren hariari heltzeko?**
 - a) Estrategia jakin bati eutsi, ordura arteko ibilbideari muzin egin gabe.
 - b) Jokaera harkorra erakutsi, ohikeriatik aldenduz.
 - c) Eskarmentua baliatuta, hainbat lanbide-arlotan jardun.
- 4. Zergatik dio artikulugileak tradizioa funtsezkoa dela enpresa berritzaileentzat ere?**
 - a) Esperientziaz baliatu beharko luketelako aurrera begira ere.
 - b) Tradizioa eta ekarpen irudimentsua uztartzeak etengabeko ikaste-estrategia hobetzea dakarrelako.
 - c) Lehenago onurarik eragin ez zuten ideiak identifikatzeko eta baztertzeko balio duelako.
- 5. Enpresan eskarmentu handiko langileak lagungarri direla dio. Zergatik?**
 - a) Ikasteko beti prest egotearen eredu izan ohi direlako.
 - b) Profesional seniorren jakintza lagun, lan-talde bikainak era daitezkeelako.
 - c) Ondo moldatzen direlako etengabe agertzen diren egoera berrietara.
- 6. Berrikuntzan aurrera egiteko, zer ez da ahaztu behar?**
 - a) Tradizioak finkatuko dituela proiektuaren mugak.
 - b) Irnatasunez zehaztu behar dela zer bereganatu nahi den.
 - c) Beti dagoela zer ikasi.
- 7. Irudimena berrikuntzarako garrantzitsua dela dio artikulugileak. Zergatik?**
 - a) Mesedegarri delako beste batzuek sumatu ere egiten ez duten zerbaitetan aritzea.
 - b) Berritzaile izateko, arriskua handia denean ere, sormenari jarraitu behar zaiolako.
 - c) Berritzaile izan nahi duenak ohiko bideak bazter uztea ezinbesteko duelako.
- 8. Berrikuntza gauza dadin, nola uxatu behar dira beldurrak eta konplexuak artikulugilearen ustez?**
 - a) Ziurgabetasun handienari ere lekua utziz ideia iradokitzailea baldin bada.
 - b) Besteen iritziak entzunez eta funsgabeko burutazioak ere beldurrik gabe onartuz.
 - c) Porrota ere ikasteko ezinbestekoa dela pentsatuz.

2. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

ESADAZU NON ARGITARATZEN DUZUN... ETA ESANGO DIZUT NOR ZAREN

Zientziaren aurrerapenak lotura estua du emaitzak zientzialarien artean komunikatzearekin. **9**

Zientzia-emaitzak espezializazio handiko aldizkarietan argitaratzen dira, eta horrelako aldizkarien aukera zabala da zientziaren alor bakoitzean. **10**

Zuzentzaile zientifiko horiek modu anonimoan berrikusten dute lana, txosten gutxi-asko xehatu bat egiten dute ikerketaren atalei buruz, eta lana argitaratzeko egokia den edo ez adierazten dute. **11**

Ikertzaile batek bere emaitzak argitaratzea erabakitzen duenean, kontu handiz aukeratu behar du zer aldizkariara bidaliko dituen emaitzak, aldizkariaren espezifikotasuna aintzat hartuta. Ikerketaren gai espezifikoa kontuan hartzeaz gain, aldizkariak izan dezakeen inpaktua ere aintzat hartzeko kontua da erabakia hartzean. Aldizkari bakoitzari inpaktu-indize bat lotu zaio, kontuan izanda zenbat aldiz aipatzen diren bertan argitaratutako artikuluak beste lan batzuetan, zer garrantzi duten artikulu horiek aipatzen dituzten aldizkariak, eta zer urtetan aipatzen diren aldizkariako artikuluak. **12** Zenbat eta handiagoa izan inpaktu-indizea, orduan eta zabalduagoa eta garrantzitsuagoa aldizkaria.

Zientziaren arloa, beraz, argitalpenen inguruan antolatu da. Hala bada, emaitzak zenbat aldiz eta non argitaratu diren ia denerako neurria dira zientzian.

13 Zientzia-argitalpenetan eta haien inpaktu-indizean oinarrituta ematen dira ikerketa-proiektuak, esleitzen dira plazak edo ikerketa-kontratuak, hauta dezakezu edo ez zer zentrotara joan lanera...; une honetan, zientzian, dena dago argitalpenen mende.

Horren guztiaren ondorioz, hainbat arazo sortzen dira. **14** Horixe gertatu zen duela gutxi Japoniako RIKEN institutuak STAP (simulus-triggerek acquisition of pluripotency) zelula amei buruz egindako ikerketetan. Baina hori ez da kasu bakarra. Gauza bera gertatu zitzaion duela urte batzuk Hwang Woo-suk ikertzaileari Korean egindako ikerketekin; ikertzaileak giza enbrioien klonazioari buruzko artikulu bat argitaratu zuen 2005ean Science aldizkarian, baina beste egile batzuek ezin izan zuten errepikatu saiakuntza. Eta lehenago ere gertatu izan da hori beste herrialde batzuetako ikerketekin.

15 Beste ikertzaile batzuek, argitalpena irakurri ondoren, saiakuntzak errepikatzen saiatu, baina lortu ez zutenean sortu zen arazoa. Esan denez, ikerketak Nature aldizkarian argitaratu ziren, inpaktu handienetako bat duen aldizkari batean, eta halako inpaktua izan zuten komunikabideetan akats horiek ere. Argitalpenean deskribatutako aurrerapenean adierazten zen zelula somatikoak zelula ama bihurtu zitezkeela, nahikoa zela zelulak estres-egoeran jartzea; adibidez, pH fisiologikoa baino pH txikiagoan mantenduta. **16**

Inpaktu handiko aldizkarietan argitaratzeko sistemak dituen akats nabarmenak direla eta, zientzia-komunitateak kritika egiten dio sistemari; hala ere, inpaktuaren inguruko interesak hain handiak dira jada, ezen oso zaila baita sistema desmuntatzea, baldin eta sistema hori gainditzen duen kalitatea neurtzeko beste sistema bat jartzen ez bada.

VECINO, Elena. Elhuyar, 2013ko uztaila. Egokitua.

2. ariketa. Txertatu testu zatia

- A.** Lan bat argitaratzeari buruzko erabakia, azken batean, argitalpen-batzordearen edo aldizkariko editorearen esku dago.
- B.** Ez da zalantzan jarri behar azken 100 urteetan zientzia-aurrerapen nagusiak argitara emateko baliatu diren aldizkarien kalitatea.
- C.** Artikulua erretiratu den arren, ikertzaileak bere emaitzetan sinesten jarraitzen du, eta aldizkari horretan bertan argitaratu du protokoloaren bertsio handiago are xehatuago bat, aurreko artikuluetan sartu ez ziren technical tips delakoekin, beste ikertzaileek berak lortutako emaitzak errepikatu ahal izan ditzaten.
- D.** Urrats hori nahitaezkoa da; izan ere, jakintzan aurrera egiteko, aurrez beste ikertzaile batzuek lortu dituzten emaitzetan oinarritu behar da.
- E.** STAP zelulen kasuan, 2014ko otsailean ikusi zen akatsen bat zegoela ikerketa horretan, artikulua Nature aldizkarian argitaratu eta handik hilabete batera.
- F.** Argitaratzeko presioa dela eta, ikertzaile batzuek arinegi jokatzen dute, eta egiaztatu aurretik argitaratzen dituzte datuak, lehenak izatea lortzeko eta aldizkari onenean argitaratzeko.
- G.** Aldizkarian agertzen diren zientzia-emaitzen zuzentasunaren eta, beraz, fidagarritasunaren nolabaiteko segurtasuna eta kontrola izateko, pareko kideen bidezko berrikusketa (peer review) deritzon sistema du ezaugarria aldizkari bakoitzak; hau da, alorreko bi ikertzailek, gutxienez, egiten dute zuzentzaile zientifikoaren lana.
- H.** «Esadazu non argiratazen duzun... eta esango dizut nor zaren eta zer lortuko duzun» izan daiteke zientziaren inguruko munduaren laburpena gaur egun.
- I.** Datu horien eta beste batzuen arabera esleitzen zaio aldizkari bakoitzari inpaktu-indize deritzona, zeina baita zientzian argitaratzen diren lanak balioztatzekeo neurri unibertsala une honetan.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								

Soberakoa	
------------------	--

3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ALIANTZA PUBLIKO-PRIBATUAK

Sektore publikoa eta sektore pribatua zenbaitetan elkarlanean aritzen dira herri-administrazioaren ohiko zerbitzu batzuk eskaintzeko: gizarte-zerbitzuekin, zerbitzu publikoen hornidurarekin edo azpiegiturekin zerikusia dutenak, besteak beste. Garapen-lankidetzari dagokionez, aliantza publiko-privatuek elkartasunaren eta justizia sozialaren arloko politiken pribatizazioa bultzatzen dute eta enpresa transnazionalak pobreziaren kontrako borrokan funtsezko partaidetzat jotzen dituen diskurtsoa aldarrikatzen dute.

Aliantza publiko-privatuen eremu bakarrak ez dira lizitazioak, kontratazioak, zerbitzu jakin batzuen hornidura edo baliabide publikoen kudeaketa, askoz ere haratago iristen baitira, gobernu-erakundeen eta enpresen helburu komunak lortzeko akordio estrategikoak direla kontuan izanik. Zenbait egilek, ordea, definizio horri ñabardurak erantsi dizkiote, aliantza publiko-privatuak baterako jarduketakontratutzat hartuz eta bi aldeen helburuek ez dutela zertan bat etorri gaineratuz. Izan ere, azterketarik kritikoenek azpimarratzen dute politika publikoen helburua, hau da herritarren ongizateari lotutako zerbitzuak antolatzea eta ematea, eta enpresena, irabazi pribatuak lortzea, oso bestelakoak direla. Azken ikuspegi horren arabera, aliantza publiko-privatuak zerbitzu publikoak eta ondasun komunak pribatizatze bideak besterik ez dira, eta politika publikoen helburuak enpresa-munduaren errentagarritasun-interesenei mende lerratzen dituzte.

Azken hamarkadan, horrelako aliantzek berebiziko garrantzia hartu dute munduko garapen-agendan eta pobreziaren kontrako politiketan. Lankidetzak-politiken esparruan, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko akordio estrategikoei «garapenerako aliantza publiko-privatu» deitzen zaie. Adierazi dugun bezala, sektore pribatuak politika publikoetan eta, zehazki, garapen-lankidetzako politiketan hainbat modutan eta mailatan hartu izan du parte: lizitazioen, azpikontratuaren, loturadun laguntzen, kredituen... bidez. Baina azken hamar urteotan, gero eta protagonismo nabarmenagoa hartu dute. Garapenerako aliantza publiko-privatuak pobreziaren kontrako borroka eragile nagusi bihurtzeko esparru formalak eta

legitimatzaileak izan dira enpresa handientzat. Zentzu horretan, enpresen lobby edo presio-lana erabakigarria izan da, transnazionalak gutxien duten pertsonen zerbitzura egon daitezkeela ikusarazten saiatu baitira. Azkenik, multinazionalen eta estatuen triangeluaren hirugarren erpinean garapenerako gobernu kanpoko erakundeak (GGKE) daude. Erakunde horien kontaktuak, esperientzia eta know-how edo egiten jakitea ezinbestekoak dira garapenerako aliantza publiko-privatuak egoki gauzatzeko.

Gaur egun, herrialde emaleetako garapen-lankidetzako agentzia gehienek eta garapenaren aldeko nazioarteko ia erakunde gehienek garapenerako aliantza publiko-privatuen bidea hartu dute, sektore pribatuaren partaidetza ahalbidetuz. Nazio Batuen Global Compact edo Mundu Hitzarmena sinatu ondoren ezarri den garapen-agenda berriaren arabera, enpresa-sektoreak pobrezia desagertzeko borroka eragile nagusia behar du izan, eta «garapenerako mundu-aliantzaren sustatzailea» ere bai, Milurteko 8. Garapen Helburuak dioenez.

Joan den hamarkadan, garapenaren inguruko nazioarteko hainbat gailur eta foru antolatu ziren, hala nola Laguntzen Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako Parisko (2005), Accrako (2008) eta Busango (2012) Biltzarrak. Horietan guztietan eta Garapenaren Finantzaketari buruzko Monterreyko (2002) eta Dohako (2008) Gailurretan, garapenerako aliantza publiko-privatuen oinarri teorikoak eta sustapen-asmoak finkatu dira. Estatu ugaritako lankidetzak-agentziek, nazioarteko agendaren jarraibideekin bat, garapenerako aliantza publiko-privatuak garatzeko berariazko erakundeak sortu dituzte, eta askok finantzaketa-mekanismoak egokitu egin dituzte irabazi-asmodun enpresa pribatuen partaidetza errazteko.

Garapenerako aliantza publiko-privatuen sustatzaileen iritziak, win-win (irabazi-irabazi) proposamenak dira, denek irabazten dutelako. Batetik, garapen-laguntza ofizialen enpresa-ikuspegiari eta berrikuntzei esker, garapen-lankidetzaren hartzaileei (biztanle pobretuei) ekonomia-hazkunderaren onurez baliatzeko aukera ematen dietela azpimarratzen dute. Baina

ustezko onura horiek nahiko eztabaidagarriak dira, ekonomia-hazkunde azkarra izandako eskualdeetan nolako desberdintasunak dauden eta garapenerako aliantza publiko-pribatueta enpresa partaideen internazionalizazioak herrialde pobretuetan zer ondorio eragin dituzten ikusita. Bestetik, garapenerako aliantza publiko-pribatuen bidez, sektore publikoak eta GGKE-ek sektore pribatuko finantzaketa-iturriak, teknologia-ezagutzak eta kudeaketa eraginkorrerako baliabideak lor ditzaketela diote. Zerbait ahazten zaie, ordea, frogatuta baitago enpresa finantzatzaile horietako batzuek urte asko daramatzatela giza, lan- eta ingurumen-eskubideak urratzen. Estatuek, garapenerako aliantza publiko-pribatuen bidez, lankidetzeta-politiken pribatizazioa sustatzen eta enpresa multinazionalen kanpo-hedapena babesten dute, eta, are kezkarriagoa, garapeneragile balioa ematen diete gizartearen aurrean. Multinazionalen jarduerak gizarte-, ekonomia- eta lan-arloan eragindako ondorioak eta giza

eskubideen urraketak jasan dituzten herrialdeetan, GGKE-ei esker, enpresa horien irudia hobetu eta onespren soziala indartu egiten da. Gainera, GGKE-ek multinazionalen sektore pobretuetan barneratzeko bidea ematen diete, tokian tokiko biztanleriari eta herrialdeari buruzko informazioa sektore pribatuaren zerbitzura jarritz.

Pobreziaren kontrako borrokari dagokionez, garapenerako aliantza publiko-pribatuen izaera berritzailearen, beharraren eta onura handien inguruko bibliografia joria gorabehera, defendatzaileek beraien gabezia jakin bat aitortu dute: ezarritako proiektuen inpaktua neurtzeko, egiaztatzeko eta balioesteko estrategiarik eza. Inoiz ere ez da egin aitzindariak horrenbeste testutan aldarrikatu dituzten aliantza publiko-pribatuen onurak neurtzeko eta balioesteko azterlanik.

PÉREZ, Silvia M. <omal.info>, 2013ko otsailaren 1a.
Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu erantzuna

17. Testuaren arabera, zer dira aliantza publiko-pribatuak?

- a) Tresna estrategiko batzuk, herri-administrazioen eta enpresa pribatuen helburu komunak lortzeko.
- b) Enpresa transnazionalak justizia sozialaren alde lan egitera erakartzeko akordioak.
- c) Baliabide publikoak erabiliz, helburu pribatuak lortzeko hitzarmenak.

18. Zer diote zenbaitek politika publikoen eta pribatuen helburuei buruz?

- a) Aliantza publiko-pribatuak helburu horiek uztartzeko aitzakia direla.
- b) Osterantzekoak direla arlo batorenak eta bestearenak.
- c) Azken batean errentagarritasunaren itzalean bideratzen direla.

19. Zer ekarri dute aliantza publiko-pribatuek?

- a) Aliantzon bidezko ekimenen pribatizazioak, gero eta nabarmenago, garapen soziala du xede, helburu ekonomikoen gaineratik.
- b) Enpresa pribatuek gero eta interes handiagoa erakusten dute aliantzotan, halakoetan ere badute zer irabazi eta.
- c) Lizitazio, azpikontratu eta kreditu kopuruak gora egin dute, interes pribatuak erakartzeko.

20. Zein da GGKE-en zeregina aliantza publiko-pribatuetan?

- a) Multinazionalak eta herri-administrazioak bateratzeko esparru bihurtzea.
- b) Sektore pribatuaren eta publikoaren interes komunak adosteko hirugarren osagaia izatea.
- c) Beren baliabideetan oinarrituta, garapenerako aliantza publiko-pribatuak modu aiposean eratzen laguntzea.

- 21. Zer eragin du garapenaren alde dihardutenek aliantza publiko-pribatuen formula aintzat hartzeak?**
- a) Hainbat enpresa pribaturen sorrera, garapenerako mundu-aliantza sustatzeko.
 - b) Sektore pribatuaren eskua-hartzea areagotzea pobreziaen aurkako politiketan.
 - c) Garapenerako mundu-aliantzaren sustapena enpresa pribatuetatik bestelako erakunde batzuetara eskualdatzea.
- 22. Zer egin dute lankidetzak-agentziek garapenerako aliantza publiko-pribatuak garatzeko?**
- a) Erakunde aproposak sortu, horrelako aliantzen mesederako.
 - b) Nazioarteko agendaren jarraibideekin bat egin, irabaziak handitzeko.
 - c) Enpresa pribatuei diru-laguntzak eskaini, finantziazioa arazo bihur ez dakien.
- 23. Partaide guztiek irabazten omen dute. Zalantzak ere badira. Zergatik?**
- a) Eztabaidagarriak direlako herrialde pobretuetan eragindako desberdintasunak.
 - b) Aliantzetako enpresek eskualde batzuetako ekonomia erabat ahuldu dutelako.
 - c) Aliantzek aldarrikatu ez duten bestelako ondorioak jasaten dituztelako garapen-lankidetzaren hartzailleek.
- 24. Zer dela eta ikusi izan dira argi-ilun batzuk GGKE-en jardunean?**
- a) Zenbait herrialdetan multinazionalen eragin kaltegarria leuntzen lagundu dutelako.
 - b) Enpresa pribatu batzuek giza eskubideei eraso eginagatik, egoera hori ezkutatzeko ahaleginean aritu direlako.
 - c) Informazioa arduragabekiaz erabiltzen dutelako.
- 25. Zer hobetu behar dute garapenerako aliantza publiko-pribatuek?**
- a) Estaturen mende egotearren erakutsitako hainbat jarduera kezkarri baztertu.
 - b) Aliantzen inpaktuari dagozkion zenbait ezaugarri hobeto ezagutzeko ildoak zehaztu.
 - c) Haietaz idatzitako bibliografia oparoan jasotako eztabaidak agerian jarri.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
 - ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
 - euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
 EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.
 Oharra: **Asmatu izenpea** azterketaren anonimotasuna bermatzeko.

GAIA: Zure erakundearen ingurumenaren aldeko apustua egin nahi duzue, eta horretarako plan bat jarriko duzue abian langileek zenbait neurri har ditzaten: papera eta bestelakoak berrerabiltzea, birziklatzea, energia aurrezteko proposamenak...

Idatzi gutuna zure ardurapeko langileei, planaren zergatiak eta ekar litzakeen onurak azaltzeko, lantokian antzemandako hutsuneen berri emateko eta planean jarrera aktiboa har dezaten animatzeko.

2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Bat aukeratu** eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu** eta **lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

TESTU AIPAMENAK**1.****GENERO-BEREIZKETA IKASGELETAN**

Auzitegi Gorenak ebatzi zuen bi ikastetxek, bata Kantabriakoa eta bestea Andaluziakoa, ez dutela jaso behar Espainiako estatuak ikastetxe hitzartuei ematen dien diru-laguntza, neskak eta mutilak bereizita, diskriminatu egiten dituztelako.

Espainiako Gobernuaren arabera, ebazpen hori beharbada ez zettorren bat Unescok hezkidetzari buruz esandakoarekin. Ondotik, eztabaida sortu da gai horren inguruan komunikabideetan eta, oro har, gizartean.

Bereizketaren aldekoek garundesberdintasunak eta emaitza akademikoak aipatzen dituzte batez ere. Bereizketaren kontra daudenen arabera, berriz, zertan bereizi irakaskuntzan, gizartean elkarrekin bizi bagara? Genero-desberdintasuna eta sexismoa arazo dira oraindik ere.

IÑURRIETA, Iñaki.
Administrazioa euskaraz, 2013ko urtarrila.
Egokitua

2.**POLIZIA BERREGITURATZEKO PLANA**

Euskal Herria da Europako Batasunean polizia dentsitate handiena duen lurraldea. Zipreren atzetik, Europan polizia kopuru handiena duen herrialdea ere bada. 2011n Eurostatek kaleratutako datuen arabera, 165 biztanleko polizia bat dago Euskal Herrian, hau da, 1.000 biztanleko sei polizia daude.

Hala ere, Espainiako Barne Ministerioko Segurtasun Idazkaritzak prestatutako behin-behineko txostenaren arabera, istiluen aurkako polizia gehiago nahi ditu Madrilek Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan.

Haatik, konponbidea ez da, dirudenez, polizia kopurua ugaritzea, jada daudenak erkidegoen beharrianen arabera berregituratzea baizik.

Berria, 2015eko otsailaren 25a

3.

LAN MERKATUA 2020AN

Enpleguaz ari garela, adituen ustez, datozen urteetan esanguratsua izango da industria, eskualde eta kualifikazioaren arteko birbanaketa. Ekonomia-eredu berri batera egokitzeko prozesuan, kualifikazio gutxien duten langileek kualifikazio-maila altukoek baino larriago pasatuko dutela aurreikusten da. Teknologia berriek hartuko duten garrantzia kualifikazio altuko langileen mesederako izango da. Kualifikazio ertain eta baxuak eskatzen dituzten jarduera errepikakorak, berriz, automatizatu egingo dira etorkizunean; eta horrek hainbat langileren trebakuntza baliogabetuko du. Trebakuntza urriko zenbait langileren egoera moldatu ahal izango bada ere, 2020ko lan-merkatuan eskaintzaren eta eskaeraren arteko tartea zabalduta egingo da.

Kualifikazio altuko langileak bezala, ertaina edota baxua dutenek ere beren burua saltzen ikasi beharko dute.

**±18, 2012ko abendua.
Egokitua**

5.

BANKETXEEN EZKUTUKO JARDUERAK

Barrutik begiratuta ikusten ditut finantza-erakundeak zikinkerietan murgilduta. Hori ez da agerikoa, baina jendeak jakin egin behar du aurrezkiak non inbertitzen dituzten bankuek, besteak beste, armen eta drogen industrian. Nahikoa frogatzea daude, gainera. Lotsatuta egon beharko genuke enpresa horientzat lan egiten dugu eta, baina mundua ez badugu errotik aldatzen, ez dakit nola konponduko dugun.

Aurpegia garbitzeko kanpainekin ezkututzen dituzte jarduera horiek. Euskal Herriko finantza-erakundeek, esaterako, inplikazio gutxi dute gure herrian. Beren premia diru-metaketa esku gutxitan egitea da. Zenbat eta gehiago zurrupatu guri --administrazioetan eta gobernuetan borondateak erosiz eta menderatuz, adibidez--, hainbat eta hobe haientzat.

**CASTRO, Joseba. Prest,
2014ko maiatza. Egokitua.**

4.

KONTSUMO ARDURATSUA

Gaur egun, krisiari esker eta industriaren lepotik, Euskadi ekologikoagoa eta iraunkorragoa da. Hala dio Euskal Autonomia Erkidegoko azken Ingurumen Profilak (urtero gure ekosistemako adierazle nagusien osasuna aztertzen duen txostena). Azterlan horren arabera, azken urteotan aurrerapen handiak egin dira ingurumena gehiago errespetatzen duen eta bizitzeko egokiagoa den Euskadirantz.

Hobekuntza nabariak egin dira arlo batzuetan: klima-aldaketa, airea, ura, lurzorua, biodibertsitatea, baliabide naturalak eta hondakinak. Paradoxikoki, krisiak eragin handia izan du hobekuntza horretan, industriaren jarduera murriztu denez, substantzia kutsatzaile gutxiago igortzen baita atmosferara.

Beraz, enpresak dira bilakaera positibo horren «errudun» nagusiak, ingurunea errespetatzeko kultura handiagoarekin eta ekoeraginkortasunaren arloko aurrerapenekin batera.

**Bizkaia Maitea,
2013ko udazkena. Egokitua.**

6.

BURUKO GAITZAK SAIHESTEA

Espaniako Neuropsikiatria Elkarteak presidentek esan du tratatzen dituzten buruko gaitz askok desoreka soziala dutela sorburu; gaixotasunon heren bat langabeziak eta etxebizitza-arazoek eragindakoa dela zuzen-zuzenean.

Alkoholismoa, tabakismoa, depresioa, antsietatea eta abar ekar ditzake langabeziak. Datuen arabera, lanean daudenen % 16k ditu arazo psikologikoak, baina langabezia daudenen % 34k.

Osasunaren Mundu Erakundearentzat gazteen langabeziaren tasa altuak ondorio larriak izango ditu etorkizuneko belaunaldietan, hala osasun fisikoan nola psikologikoan.

Adituen arabera, hori guztia ezarri diren austeritate-politika neoliberalen ondorio ere bada, eta hor gobernuak erantzukizun zuzena dute.

**GARCIA, Mikel. Argia,
2014ko apirilaren 6a. Egokitua.**

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «BERRIKUNTZAK EZ DU, EZ AURREIRITZI, EZ KONPLEXURIK»

1.	C	2.	A	3.	B	4.	A
5.	B	6.	C	7.	A	8.	B

■ **2. ariketa:** txertatu testu zatia.

■ **Irakurgaia:** «ESADAZU NON ARGITARATZEN DUZUN... ETA ESANGO DIZUT NOR ZAREN»

Hutsuneak	9.	10.	11.	12.	13.	14.	15.	16.
Testu zatiak	D	G	A	I	H	F	E	C

Soberakoa	B
-----------	---

■ **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «ALIANZA PUBLIKO_PRIBATUAK»

17.	A	18.	B	19.	B
20.	C	21.	B	22.	A
23.	C	24.	A	25.	B